

Maitea

Toni Morrison

Itzultzailea: Anton Garikano

2004

Alberdania-Elkar

Berroroituz

Puzzle korapilatsu baten gisan joan beharko dugu osatzen istorioa. Egileak eramango gaituen berroroitze-bideetatik joango gara osatzen puzzlea, beti ere hiru ardatzong inguruan: ama bat (Sethe) izugarrikeriatik libratzearren bere alaba hiltzen duen emakume esklabua; alaba bat (Maitea) txikitatik esnea odolarekin nahasia hartu zuena eta hainbat urteren buruan mamu gisa berragertuko dena; eta hirugarrenik, esperientzia bat: hilketa, maite den pertsonaren minari akabu emateko gelditzen den tresna gisa. Ez da, zinez, inori kontatzeko istorioa, Maiteak berak azkenean aitortuko duenez. Hala ere, kontatu egingo zaigu edo, hobeto esanda, hainbat elementu emango zaizkigu eleberrian zehar, modu neurtuan, dosifikatuan, eta gu geuk joan beharko dugu, pertsonaiek denboran zehar egindako atzera-aurrerako jauzien bitartez, istorioa lotzen, puzzlea osatzen.

Nola jokatzen du gizakiak muga-mugako egoeretan? Gelditzen al zaio leihorik esperantzari halakoetan. Halako egoera gogorretan, zer da traizio egitea, zer neurritaraino maitatu daiteke, zer puntutaraino eutsi dakioke fedeari, zenbat jasan daiteke erotu aurretik, beldurrak eragiten ditu mamuak ala benetakoak dira? Horiek guztiek aurkituko ditugu planteatuta eleberri honetan, egoera ezin latzago baten erdian: "Hau ez dun borroka, hau porrota dun" esango dio pertsonaia batek besteari, edo "ez dago zorte txarrik, zuriak daude" beste batek lagunari. Era guztietako giza-harremanen muineraino sartuko gara bidaia honetan, gizarte afroamerikarraren historia, benetako berroroitza eramango gaituena. Horren gainean baitago eraikia Estatu Batuetako gizartea, horren gainean eta eleberrian ere islaturik azalduko zaizkigun indioen gainean. Labur-beharrez esango dugu maisu-lan baten aurrean gaudela teknika literarioaren aldetik; denboraren tratamendua, narratzailearen desagerpena istorioaren beraren mesedetan, esanezinezkoetara hurbiltzeko edukietara zeharbidetik eta iradokimenaren bidetik iristeko ahalegina... Eta itzulpenaz ere beste horrenbeste. Itzulpen on bat egiteaz gain, are erronka interesgarriagoari ekin diola esango nuke Garikanok oraingoan. Euskararen sintaxia laxatzeko ahalegina nabaritzen da eta oso eskertzekoa da irakurleon aldetik.